

Zinema

Stanley Kubrick

Maisuak utzitako odisea

Jenio handienen antzera, izaera eszentrikoa zuen Stanley Kubrick zuzendariak: aktore eta lankideekin bereziki zorrotza, eta detailerik txikiena kontrolatzen obsesionatua, zeresan handia eman zuen beti, eta ematen jarraitzen du, hil zela hamar urte bete direnean. Guk begirada maisuan baino, maisulanean pausatuko dugu, utzi zuen ondare zinematografikoak balio izugarria baitu.

MIKEL GARCIA

TXIMUAK AIRERA botatzen duen hezurra, espazio-ontzi bilakatuta bueltatzen dena. Jack Nicholsonen begiak zainetan, aizkora eskuan duela. Biolentziaz betetako irudi zaparrada ikustera behartutako gaztea, Beethovenen bederatzigarren sinfoniaren eritmorra. Gutxienez fotograma hauetakoren bat ezaguna duzu, nahitaez, Kubricken herentzia ez baita soilik zinematografikoa; kultura garaikidearen zati bilakatu da bere lana. Horregatik, zinemagintza hutsari egindako ekarpenez mintzatu aurretik, interesgarria da ikustea kulturaren eta oro har gizartean izan zuen eragina.

Gizakiaren dilemei eta jarrereri buruz filosofatzeko, gai arantzatsuak aukeratu zituen Kubrickek, eta arantzatsu landu zituen gainera. Sexua, subliminalki bada ere, presente zeukan beti, eta heriotzari, biolentziari edo gerrari eman zion tratamenduak garaiko moral kontserbadoreenak aztoratu zituen behin baino gehiagotan. *A Clockwork Orange* filma (1971), esaterako, debekatua egon da duela gutxi arte Britainia Handian, indarkerian oinarritutako jarrerak gazte ingelesengan zuten eraginaren beldur. Izan ere, pelikulako protagonisten antzera jantzita Londresko hainbat nerabek biolentzia erabiltzen zutela –hilketa bat tarteko– salatu zuen prentsak garai hartan. Halaber, ez da zaila imajinatzea *Lolita* lanak (1962) askorengan sortu zuen urduritasuna. Filmean, 14 urteko neskatooz maitemintzen da James Mason heldua –Nabokoven liburuko erakarpén sexuala maitasunarekin ezkutatu zuen zuzendariak, zentsurari ihes egiteko–.

“Kubricken pelikulak eskandalu bide izan dira sarri, eta horrek zinemari aurrera egiten lagundu dio, ausarta izaten. Ikuspegi morale-

tik ditugun kezak, zalantzak eta aurreiritziak zapuztu egin zituen Kubrickek, edo bederen kolokan jartzen lagundu zigun”, dio Begoña del Teso zinema kritikariak. Bere hitzetan, askatasunaren bandera bilakatu zen gizartearentzat, iraultzailea, “ikuslea amildegi askoren ertzean jartzen zuelako beti”. Alegia, hausnartzera behartzen zuen ikuslea, eta hausnarketarako makina bat bidezidor eskaintzen dute bere lanek. Hori, dena mastekatua eman ohi duen gaur egungo zine komertzialenaren ondoan, eskertzekoa da, duarik gabe. “Kubricken pelikulak lehen begirada batean agian ez dira guztiz ulertzen, baina badakizu barruan zerbaít dagoela, eta hori dastatu nahi duzula”, dio Del Tesok.

Lerro artean irakurtzeko pelikulak direla uste du, halaber, Aitzol Aramaio zinema zuzendariak (*Un poco de chocolate*): “Gai nagusia bat dela ere, irakurketa ugari dauzkaten filmak dira, bai dramatikoki, bai teknikoki. *The Shining*-en adibidez, beldurrezko pelikula planteatzen du, baina bikote harremanak lantzen ditu gibelean, eta isolamenduaren eraginak jorratzen ditu”. Zer esanik ez *2001: A Space Odyssey*-ri (1968) eman zaizkion interpretazio antzez. Stanley Kubrickek berak argi utzi zuen filmari buruzko elkarriketa batean: “*2001* ez da zientzia fikzioaz ari, espiritualismoaz mintzo da, Nietzschez, eta ikuslea askea da nahi duen moduan espekulatuzeko filmaren esanahi filosofiko eta alegorikoaz”.

Finean, gurtu egiten duten jarraitzaile sutsu ugariék baieztatuko luketenez, inork ez bezala xehatu zuen Kubrickek gizakia eta gizakion arima; sinbolismoz eta filosofiaz beteriko filmen bidez, maisuki arakatu zuen gizon-emakumeon kontzientzia. Askorentzat, etorkizuna aurreikusten jakin zuen, eta

“Kubricken pelikulak eskandalu bide izan dira sarri, eta horrek zinemari aurrera egiten lagundu dio, ausarta izaten”

BEGOÑA DEL TESO, KRITIKARIA



Hiru film laburrez gain, Kubrickek ia 50 urtetan 13 pelikula luze errodatu zituen denera: *Fear and Desire*, *Killer's Kiss*, *The Killing*, *Paths of Glory*, *Spartacus* (1), *Lolita* (2), *Dr. Strangelove or: How I Learned To Stop Worrying And Love The Bomb*, *2001: A Space Odyssey* (3), *A Clockwork Orange* (4), *Barry Lyndon*, *The Shining* (5), *Full Metal Jacket* (6), *Eyes Wide Shut* (7).

A Clockwork-en daukagu berriz adibidea: ultrabiolentzia, entretenitzea beste helbururik ez duen biolentzia basatia, hedatutako epidemia da XXI. mendeko megapolisetan. Dena den, Kubrick ikusteko ez dagoela entziklopedia besapean eraman beharrik gogoratu du Del Tesok: "Bada ezabatu behar den ideia bat: bere zinema ulertezina dela dioena. Besterik gabe, Kubrickek bidaltzen dizkizun seinaleei arreta gehiago jarri behar diezu, baina bakoitzak nahi duen jarrerarekin disfruta ditzake filmak".

Teknikaren nagusitasuna

Txikitatik xakearen zale amorratua izan zen New Yorkeko zuzendaria. Eta xake jokalarien pazientziak eta zuhurtziak gidatu zituen bere lanak, dudarik gabe. *Spartacus* (1960) izan zen estudio handien mende errodatu zuen azken pelikula, ondoren Britainia Handira egin zuen alde, eta filmen erabateko kontrola bere gain hartu zuen, prozesu guztiak pertsonalki gobernatuz. Perfekzionismo hori istorioari ekin aurreko dokumentazio lanean hasten zen. Napoleonen bizitza pan-



Herriko plaza z/g • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)
Tel. 943 69 34 81



Uztartza

ATERPETXEA eta JATETXEA




Eguneroko menua
Asteburuetan betiko sukaldaritza

taila handira eramateko asmoz, 30 urte eman zituen materiala biltzen: 18 mila liburuki eta testu baino gehiago, eta enperadore frantziarrak egunero egiten zuenarekin osatutako artxi-
bo bat, detaile txikienekin. Bitxiena da azkenean proiektua bertan behera uztea erabaki zuela, Bonaparteri buruzko beste pelikula batek (*Waterloo*) ez zuelako arrakastarik izan.

Filmazioan ere, perfekzioa zuen arau: kamera mugitzeko moduan, pertsonaiak irudikatzeneko estiloan edota erabilitako denbora zinematografikoan, hartutako erabaki gehienak funtsezkoak izan dira ondorengo zinemagintzan, ausartak eta berritzaileak. Berdin soinua bandekin, musika klasikoa genero berriekin uztartu zuen eta hainbat eta hainbat obra handi herrikoi bihurtu zituen. Egun, *Zaratrusta* entzutean, 2001ekin akordatzeko gara, jatorrizko obrarekin baino.

Zuzendari izanik, Aitzol Aramaiok Kubric-ken teknika azpimarratu du: Orson Welles bezalako maisuetatik angelu handia hartu zuen, koloreak trebezia zuten eta soinua menperatu zuen: “*Full Metal Jacket*-en bada sekuentzia bat, soldaduek erasoan: bat-batean entzuten duzu soldaduekako bat metrailatu eta hil egin dutela. Gero ordea, konturatzen zara zati horrek ez daukala soinurik, metrailetarena zuk sortutako pertzepzioa izan dela; entzun gabe entzutea... Hor dago Kubric-ken handitasuna. Edota *The Shining*-en off-ean dagoenarekin jolasteko duen moduan; hain zuzen, ikusten ez den hori da beldurgarriena”.

Berritzeko beharrak beti zirikatatu zuen Kubrick. 1999an, batere ezaguna ez den elkarrizketa eskaini zuen hil baino ordu batzuk lehenago –urteak zeramatzan kazetari-
en hitz egin gabe–. Solasaldian dioenez, ekoizteko eskema aldatu nahi zuen, eszena solteak grabatu, istorioa eta ekintza nora doazen oso ondo jakin barik. “Besterik gabe, nire irudimena harritu eta pizteko”. Ordurako filmatuak zituen irudiak ziurrenik pelikula izango ziren gaur egun, baina imajina haiek ez dira inoiz argitaratu eman.

Stanley Kubrick (goiko irudietan) New Yorkeko Bronx auzoan jaio zen, 1928an. Xakea, jaza eta argazkilaritza oso gustuko zituen eta lanerako bizi zen. Fraide-bizitza zeramala zinema egiteko “ez dagoelako festez eta emakumez inguratuta egon beharrik, zuzendari askoren antzera”. Bihotzekoak jota ohean hil zen, Ingalaterra hegoaldean, 70 urte zituela.

Kritika zatituta

Bere garairako aurreratua denari gertatu ohi zaio, haren obra ez dela beti ulertzen eta gerora izaten dela aintzat hartua. Kubrick ez da salbuespena, eta kritikariak ez zituen beti aldeko izan. Begoña del Teso kritikariaren hitzetan, “orain erraza da esatea iraultzailea eta aitzindaria izan zela, baina une hartan, *Ben Hur* ikustetik atera eta *A Clockwork* ikustera sartzen zarenean, lekuz kanpo harrapatzen zaitu zeharo. Kritikaririk ausarteneke baino ez zuten ikusi Kubric-kek asko zuela barruan. Gainera, kritikariak hezur-haragizkoak gara, pentsaera jakin batekin, eta Kubric-kek mahai gainean jartzen zituen planteamendu iraultzaileak batzuentzat ez ziren onargarriak”.

Kontuak kontu, irudikari garaikidean iltzatuta geratu zaigu *Soldadu Baldarraren* begirada ero eta zirrargarria, bere buruaz beste egin aurretik. Sekta sekretuen mozorro-dantza erotiko eta sexuala, Tom Cruise adi dela. Lorategian etzanda, eguzkitako betaurreko handiak jantzita dituen Lolita, karamelua ahoan.

Elkarrizketatuei ere galdetu diegu euren imajina eta film kutunen inguruan. *The Shining*-en (1980), igogailutik bat-batean irteten den odolezko olatu ikaragarriak oraindik izutu egiten du Del Teso. Gustukoan dituen lanak, *Barry Lyndon* (1975), “pelikula pikaresko dotorerik eta maltzurrik onena delako”; *Eyes Wide Shut* (1999), “erotismoa, amodioa eta sexua borborka dituen fantasia lizuna eta ederra delako”; eta *The Shining*, “askok mespretxatu ohi duten generoari, beldurrezkoari, heldu ziola-ko eta pelikula ikusten beldur handia pasa nuelako”. Aramaiok gehien berrikusi duen filma ere Jack Nicholson erotzen dena da: “Pasillo luzearen eszena, umea trizikloan... Pixkana estutasun sentsazioa sortzen joaten da, ezinegona, giro hertsia, eta horretarako ez du efektu handirik erabili beharrik”.

Benetako zinema baldin bada denbora-
rekin gaurkotatzen galtzen ez duena, pentsatu arazten diguna eta estetikoki gozagarria dena, adibide garbia aurkituko dugu Stanley Kubric-ken ondarean. Hil zela hamar urte pasa diren arren, bere zinema bizirik dago oraindik. ■

